



NOR HELDUKO DA AZKARREN TXINDOKIRA?

Igandean Xabi Lasak eta Mikel Senperena, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidi abaltzisketarrek apustua egingo dute >7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-06-25

VILURTEA 1.737.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Gorritarango Eguna antolatu dute iganderako, Txintxurdirin Lehiaketa eta guzti

LEITZA Urtero bezala meza, musika, dantza, janaria, zozketak,... izango dira **2**

Pilota Asteburua antolatu dute Su-Berrikoek Valentziako Boboto pilota eskolarekin

ANOETA Bihar harrera egingo diete valentziarre; egun handia larunbata izango da **3**



Sanjoanak amaituta, ongietorria egingo diete sanpedroei bihartik aurrera

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Leaburun, Asteasun, Urkizun eta Areson izango dira **6**

Eskopetarien konpainia guztiak Triangulon elkartu ziren eta banan bana tiroa bota zuten; ondoren guztiak batera egin zuten tiro. N. LATABURU / L.TERRADILLOS

EGUNIK DOTOREENAK ESAN DIE AGUR AURTENGO SANJOANEI

TOLOSA Egun polita izan zen atzokoa; ohi bezala, eskopetariak eta dantzariak izan ziren protagonistak; bateletan Ibarako arraunlariak nesketan eta Berrobi A taldea mutiletan izan ziren irabazleak **4-5**

parafarmazia
farmadenda



Gora
sanjoanaki

- Haurrentzako nutrizioa
- Dermokosmetika
- Kontsultak - DIETAFACIL
- Automakillaje ikastaroak

lurre auzoa, 7

Tolosa

Tel.: 943 57 95 28

farmadenda@euskalnet.net



Kartelak jarri zituen Tolosako AAMk herenegun Arrameleko zubian. HITZA

Tolosako AAMk «presoak eta Anza gogoan» eduki ditu

Politika » Jaietan urtero bezala, Udaltzaren aurrean lehenik kartelak jarri zituzten eta ondoren manifestazioa egin zuten.

ERREDAKZIOA

Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimendua enkartelada burutu zuen herenegun, urteroko ohi-turari jarraituz. Horretaz gain, jaietan «Jon Anzaren desagertaren salaketa bazter guztietan» egon dela aipatu dute AMMtik.

Tolosako Udaltzaren 19:30ean Plaza Zaharretik abiatu zen Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Udaltzaren egiten duen ibilbidean kokatuta dagoen Arrameleko zubian, kartelak jartzeko deialdia egin zuen. Honi erantzunez bertan 60 lagun inguru elkartu ziren.

Eskualdeko presoek argazkiak presente egon ziren ekimena gauzatu zen bitartean. «Jon Anzaren desagertaketa» pankarten bidez salatzeko gain, Udaltzaren zubiaren zeharkatu zuenean «Jonen egoeraren inguruko oktibak bota ziren». Hautetsi independentistek *Demokrazia zero* eta *Lapurak dimittitu* lelopeko pankarta erakutsi zuten.

Enkarteladako parte-hartzaileak «Jon Anzaren desagertaketa eta egoera anti-demokratikoa» salatzen leloak ohiukatuz manifestazioa egin zuten. Udaltzaren kideen atzetik, hauek udaletxera itzultzeko ibilbideari hasiera eman ziotenean.

Ekimenari amaiera Plaza Zaharrean eman zioten. «Aurtengo San Joan jaietan, Tolosako Alde Zaharreko bazter guztiak, Jon Anzaren desagertaketa eta presoek egoera salatzeko propagandaz jositako» egon direla ere aipatu dute Amnistiaren Aldeko Mugimendutik.



Eskualdeko euskal presoek argazkiak presente egon ziren. HITZA



Leitzako Gorritzaren auzoan jaiak ospatuko dute hilaren 28an. Ume jolasak goizean ospatuko dituzte. NAIARA GARZIA

Gorritzarango Egunean Txintxurdi Txapelketa ez da faltako, igandean

Leitza » 20:00etan izango da lehiaketa Basa-Kabin; urtero bezala meza, musika, herri kirolak, zozketak,... ere izango dira.

ASIER IMAZ

Basa-Kabin Gorritzarango Eguna ospatuko dute hilaren 28an, igandean. Urtero bezala goizetik gaue-ra hainbat ekitaldi antolatuko dituzte eta horien artean Txintxurdi Txapelketa azpimarratu behar da. Joko, proba edo desafio kuriosoa da Txintxurdi Txapelketa.

Munduko Txapelketa

Mundu osoetik ez dira etorriko parte-hartzaileak. Ez du mundu osoak parte hartuko lehian. Baina ez da munduan beste lekuri Txintxurdi Txapelketa jokatzeko denik.

Leitzako Gorritzaren auzoko festaren zaurgarria da: neska eta mutil, lurrean dagoen txanpona

ahalik eta urrutien uzten saiatuko dira, beti ere hankak arrastoaren atzean eta beso bakarraren gainean jarritik.

Txintxurdi 20:00etan hasiko dira. Aurrez eta ondoren, jaiak ez du atsedenaldirik edukiko.

Zozketa eta guzti

Egun guztian zehar boletoak saltzen ibiliko dira jaiaren antolatzaileak eta laguntzaileak, ondoren zozketa egiteko. 20:30ean ondorengo sariak banatuko dituzte besteak beste: bi pertsonentzako bainuetxean asteburuak; telebista bat; Bixigarriko produktuekin saskia; 100 euroko bale bat Kapritxo dendarako; ordulariak; Musunzarren birezat afaria eta sorpresak.

Trikitaliak egun guztian zehar

Ospakizuna 10:00etan hasiko da Mezarekin. Ondoren herri kirolak eta umeentzako jokoak egongo dira. Bazkaria 14:00etan hasiko da: entsalada, arrain-zopa, arkumea...

Arratsaldean Mus Txapelketa eta lehen aipatutako Txintxurdi Txapelketa jokatu dira. Dantzaldia 19:00etan hasiko da eta gaurdirarte Angel Agerralde jo eta su ibiliko da.

Azkenik, igandean egun guztian zehar trikitilariak ibiliko direla aipatu dute Basa-Kabin Gorritzarango Eguna antolatzen duten auzotarrak.

» EGITARAUA

Ekainak 28, igandea

- 10:00etan. Meza.
- Ondoren. Herri kirolak: sokatira eta umeentzako jokoak.
- 14:00etan. Bazkaria.
- 17:00etan. Mus Txapelketa.
- 19:00etan. Dantzaldia Angel Agerralderen eskutik.
- 20:00etan. Txintxurdi Txapelketa.
- 20:30etan. Zozketa.
- Ondoren. Txokolatea denentzat.



Txintxurdi Txapelketa kuriosoa jokatu dute igandean Gorritzarango 20:00etan. JAIONE ASTIBIA

Beti alai
jateko

Garaian
garaiko janariak
Arraikiaren berezia



Jubilatuak ere San Joan Eguna ospatuz

ANOETA • Anoetako jubilatuak modu ederrean ospatu zuten San Joan Eguna, atzokoan. Izan ere, eguerdi aldera bazkari ederra egiteko elkartu ziren; herriko ikastolako sarrera erabili zuten horretarako eta guztira 76 lagun bildu ziren. «Giro ederra» zutela goraipatu zuten eguraldia lagun zutela eta biribilkia patata purearekin jan zuten. Bezperan ere San Joan suaren inguruan antolatu zuten jaia. Izpiritu txarrak sutan uda ona izatea espero dute. Modu onean ekin diote behintzat. N. URIBU

Mikel Laboa omenduz «ekitaldi xumea» antolatu du Loatzok

Kultura • Adunako pilotalekuan izango da omenaldia, bihar, 22:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Mikel Laboari «omenaldi xumea» eskainiko dio Loatzok musika eskolak, bihar 22:00etan Adunako pilotalekuan. Abeslari lanetan ikasle, irakasle, ikasle ohi eta eskualdeko kantujirakoak ariko dira; «kantari sorpresaren bat» ere iragarri dute Loatzotik.

Musika eskolak «euskal kantagintzaren transmisore izatearen garrantzia azpimarratzeaz gain, eskolan euskal kantugintza bultzatzea» helburu nagusizat dute-nez, euren ikasleek (haur, gazte eta helduek), Mikel Laboaren kantuek herrian izan duen eta izan behar duen garrantziaz jabetzea izan dute helburu ekitaldia antolatze-reakoan.

Halaber, gaur egun hain galduak dauden kantaldi xume bat berreskuratu nahi dute.

Su-Berrik Valentziako pilota eskola bat gonbidatu du Pilota Asteburura

Pilota • Borboto herriko pilota eskolakoak dira; bihar hasi eta igandera arte iraungo du Pilota Festak, «pilota sustatzeko» xedez.

ERREDAKZIOA

Duela bi urte, Valentzian (Herrialde Katalanak) ospaturiko Eskuzko Pilota Kongresuan, piztu zen ideia eta, azkenean, gauzatu egin da. Pilota ardatza izanik, Valentziako Borbotoko pilota eskolak eta Anoetako Su-Berrik Pilota Asteburua antolatu dute. Biher egingo diete valentziarrei harrera Iruran eta igandera arte pilotaren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte, gehienak Anoeta eta Irura artean garrantuko direlarik.

Su-Berri elkarteko kide den Maider Mendizabalek eta Borbotoko pilota eskolako arduraduna den Ana Belen Ginesek adostu zuten gisa honetako ekimena antolatzeari.

Etzi, Pilota Festa Anoetan

Egun nagusia larunbata izango da. Eskuzko eta raspall-en hastapena eta pilota tailerra egingo dituzte goizean zehar. Ondoren, valen-

tziaz erara paella on bat jateko aukera izango dute pilotalekuan bertan. Arratsaldean bi pilota eskolen arteko partidak ikusi ahaliko dira eta opari banaketa ere izango dute parte-hartzaileen artean. Zozketa bat ere izango dela iragarri dute.

Azkenik, festa egunari amaiera emateko, valentziarren eskitik azken traka botako dute.

Pilota jokamolde ezberdinak ezagutzeko aukera paregabea

Su-Berri Pilota Elkarteari, elkarte berria izanik eta bere helburu nagusienetako batez ere pilota anotarren artean sustatzea dela kontuan harturik, oso interesgarria irudituko zitzaion, Anoetan Pilota Festa antolatzeari. «Honelako ekintzak bultzatuz, euskal pilota herrian sustatzeaz gain beste herrialdeetako pilota jokamolde ezberdinak ezagutzeko aukera sortzen dela uste dugu», adierazi dute elkartetik.

Anoetari beharrezko garrantzia ematea merezi duela uste dute Su-Berrikoek, horregatik larunbatean Anoeta izango da festako gunea. Hala ere, Iruran ere egingo dituzte ekintzak, batetik, gertutasuna dela-eta eta, bestetik, «bertan trin-

keta eta pilotalekua elkarren onkera daudela kontuan izanik, euskal pilotako beste jokamolde batzuk probatzeko aukera ematen digulako».

Garrantzitsuena, hala ere, ezagutzen arteko elkartrukea dela go-

raipatu dute antolatzailerak eta pilota festa hau aurrekarria izan dadila nahi dute. Kirola eta festa uztarturik izango dira. Pilotazaleek hitzordu garrantzitsua dute, beraz, asteburuan, Anoeta eta Irura artean.

» EGITARUA

Ekainak 26, bihar

■ Lehenik, Escola de Pilota Borboto taldearen harrera Iruran.

■ **16:30-19:30.** Borbotoko artean 2 talde egin eta jokamolde hauek landuko dituzte: Trinketeko jokamoldeen hastapena: eskua, paleta eta xarea. Zesta-puntaren hastapena frontoian Iker Foronda puntista profesionalaren eskutik.

■ **20:00.** Afaria Irurako trinketearen.

■ **22:00.** Neska pilotarien erakustaldi partidak Anoetako Alkartasuna frontoian.

Ekainak 27, etzi: Pilota Festa Anoetan

■ **10:00 - 13:00.** Eskua eta raspall-aren hastapenak.

■ **14:30.** Anoetako frontoian paella jatea.

■ **16:30-19:30.** Borboto eta Anoetako

tako pilotarien artean pilota partidak (eskupilota eta raspall).

■ **19:45.** Anoeta eta Borbotoko parte-hartzaileen artean opari banaketa.

■ Ondoren, pilotako opari sorta baten zozketa egongo da.

■ **20:15.** Valentziarren eskutik festa amaierako azken traka botako da.

Ekainak 28, igandea

■ **11:00.** Irungo Ramuntxo Berri trinketearen jokoan den Trinketeko Emakumezkoen II. El Diario Vasco Sariko finalerdiak ikustera joango dira valentziarrak.

■ **14:30.** Bazkaria egingo dute Zarautzen.

■ **Arratsaldean.** Borbotokoak eskuko profesionalen partida ikustera joango dira Zarautzeko Aritzba-talde pilotalekura.

Laburrak

Udalaren deia bizilagunei merkatura joan daitezen

IBARRA • Udalak ibartar guztiak animatu nahi ditu udal merkatura joan daitezen gaur, osteguna. Merkatuak asteroko jarraipena izango du aurrerantzean. Hala «Udalerriko bizilagunek produktu eskaintza zabala» izango dute aukeran 08:00etatik 13:30era arte Emeterio Arrese plazan.

Pirinioetara irteera antolatu du Alpinok

TOLOSA • Alpinok uztailaren 4rako eta 5erako Pirinioetara irteera antolatu du, Ardiden eta Bernat Barrau mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean egin daiteke (alpinouzturre@hotmail.com, 943 652789).

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



AGURRIK DOTOREENA

San Joan jaiek » Eskopetariak, bordondantzariak, erraldioak, prozesioak, alardeak, batelak... izan ziren atzo, aurtengo San Joan jaiek agurtzeko.

KLATABURU-LEBARDILLOS

Egun handiena izan zen atzoko San Joan jaien buruan, tradiziozkoena, elegantea, ilusgarriena, entzungarrena... San Joan Eguna. Goizean goizeatik hasi ziren herriarrei oharbaratzen esanatu, eta herriarentzat egunik bereziena izanik, kalera irten eta ospatu behar zegoela. Lehendabizi, Tolosako Txistulari Banda aritu zena kalera sartu eta, Musika Bandaren Diana etorri zen ondoren, Tolosako Txistulari Bandak errepikatu egiten zuten gero Trufelako Txistulari Bandarekin, eta azkenik Gero Arte dultzaina taldearen Diana izan zen entzungai Tolosako kaleetan. Ondurako, noski, ez zen ia inor gertatuko egusaren garrantziaz ohartu ez zenik. Kalera ateratzeko prestatzen hasi ziren, beraz, jendea, baita ez nolana, armairuko arroparik pampox eta ilusgarrienak aukeratu zituzten. Hori dela eskatuko ote du bu tradizioak? Añan, prozesioan Udalbatzarekin, kofradiekin edota erraldioekin batera parte hartzeko aukera zegoela pentsatuko zuten. Kontak kontatzen, batzuenatik edo besteengatik, herri osoak zuten atzokoan ikurra apaina.


Udalbatza jarriti berrogeikoa anara zen aspaldiko ohiturei jarraituz, eta Diana, desfilea eta Gipuzkoako antzindako foru milizien orolimez egiten den San Joan A laudearen ostean Santa Maria parrokian ziren abiatu ziren, meza nagusira. Hainekin batera joan ziren eskopetariak, eguneko beste protagonisak. Meza amaitzearekin batera hasi ziren ikuskizuna Santa Maria plazan. Lehendabizi erraldioak jarri ziren dantzan, eta ondoren bordondantzariak izan ziren jarraitu zutenak. Prozesioan irten ziren sarrak, eta segidan Udalbatza irten zen elizatik. Orduan hasi ziren, baita ere, ehunka eskopetariak konpainietan banatuta batera eta bestera, Triangulo aldean. Triangulo izan zen, beraz, guztien topagune, eta han banan banan jarri ziren eskopetariak tiro eginez, sarrak Udalbatzari baita meza eskatuta. Azkeneko utzi zuten bururua handiena, konpainia guztiakiko buruak tiro egiteko agindua eman zutenen. Egun osoan zehar jarraitu zuten atzokoan txistu eta tiro hotsek, hori baitzen eskopetariaren egite-

koa, eta bordondantzariak ere eskatzen zuten dantzaz geroago arratsaldean. Zuma-dian egiten zen ohiko aurrekoa Trianguloan egiten zuten hauek, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak ere hartu zuen aurrekoa dantza-zako leialdian gero. Hau guzria, Arremelako San Joan kapera ohiko arratsotoitzetan parte hartu ondoren egiten zuten.



Erraldioak eta dultzaineroak Santa Maria plazan. N. LATAURU

Txi-rindularitza eta arraua
Atzoko egunak ere utzi zion txi-rindulari tartea. Easteak, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta, XXXVI Jose M. Anzaren omeneko peboi izan zegoituen. Horretaz gain, ikusmin handia piztu zuen batel estropaden finalak Zerkausaren inguruan. Nesketan, Ibarako arrauariak izan ziren garaile, X-Lan Informatica bigarren garatu zen eta AKE Izaskun hirugarren. Mutiletan, beriz, Berrobi A izan zen lehena, Itatza taberna bigarren eta Anoeta hirugarren. Aipatzekoa da Berrobi eta gaitzakoan denborak, Tolosako arrauen ibilbide berriaren eginko omenak izan baitira. Bestalde, Anbrosio Ibarzabal Ibarzariari omenaldia egiten zioten, eta Ziaboga Omenari saria ere jarri zuten bere omenez. Ibarako Arraularien patriak, Irati Ozenak jaso zuten. Musika eta su festarekin ere ziren gaudan aurtengo sarjanoen ziken unek.



Jokin Bildarratz alkatea aurrekoa dantzatzen Triangulo plazan. N. LATAURU



San Joan Santa Maria elizatik prozesioan irten zuten. N. LATAURU



Tiro hotsak musikarekin nahastu ziren atzo. N. LATAURU



Gazteak ere gogotsu aritu ziren eskopetarekin. N. LATAURU



Eskopetariaren konpainiak Añan Zaharreko kaleak igaro zituzten txistu eta tiro hotsak lagundurik. N. LATAURU



Trianguloan eskopetariaren konpainiak euren lana egiten. N. LATAURU



Ibarako Arraulariak izan ziren nesketan garaile batel estropaden finalean. N. LATAURU

ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Atezaia automatikoak
- Antena kolektibak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, genda,...

Iurre Auzoan, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa elorri, 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

Sanpedroak udari ongietorria egiteko

Jaiak » Sanjoanekin agurtu dute udaberria herri askotan eta beste batzuetan sanpedroekin emango diote hasiera udari.



Herriko dantzariak urtero eskaintzen dute emanaldia Leaburun. A. OTEZABAL

ERREDAKZIOA

San Pedro eguna izango da datoren astelheanean eta eskualdean hainbat herritan ospatuko dituzte jaiak, Urkizu auzoan, Asteasun eta Leaburun, hain zuzen. Areson ere abuztuan izaten dituzte herriko jaiak, baina sanpedroetan ere Festa Txikiak izaten dituzte. Abaltzisketan, gainera, igandean, Txindokiko apustua egingo dute 11:00eta-

tik aurrera, herriko lau gazteren arteko lehia, hain zuzen. Ondoren, 12:30ean, meza nagusia izango dute eta bukatzerakoan hamaiketako zein trikitaliak egongo dira. Arratsaldean, trikitalia doinuak izango dira nagusi iluntzera arte.

San Pedro jaiak ospatzen hasiko diren lehenak asteasuarrak izango dira, bihar bertan hasiko baitituzte jaiak. Asterartera arte ekitaldi ugari izango dituzte.

Leaburun, aldiz, etzi hasiko dituzte jaiak eta astelheanean buka-

tuko dituzte. Larunbatean herri afaria ere egingo dute eta tiketak ostatuan edo Udaletxean erosi daitezke 5 euroren truke. Tiketak erostekoazken eguna bihar izango da hau da menua: urdaiazpikoa eta otarrainka egosiak, saiheski erreata letxuga eta tipularekin, postrea eta kafea zein kopa.

Bukatzeko, Urkizu auzoan, etzi botako dute festei hasiera emateko suzuria eta astelheanean bukatuko dituzte jaiak. Igandean 11:00etan Patata Tortila lehiaketa izango dute eta izena ordu erdi lehenago eman behar da.

Egun guztian zehar, gainera, umeentzako puzgarriak eta trikitaliak egongo dira.

Gutunak

Besterik etzen falta... eta ez da lehen aldia

Orain dela hilabete batzuk Udala Korporazio honen sentsibilitate falta eta mespretxua salatu genituen: Txontxo eta Donperu erailkuntzen suntsiketaz ari ginen hitz egiten. Orduan, ibarbarrok herriaren nortasuna eta oroitzen kolektibo ordezkatzen zuten bierailkuntza historiko galdu genituen.

Gure harridurarako, gaur antzeko gertakari baten aurrean aurkitzen gara: «Ibarrako labaderoa suntsitu dute». Emeterio Arrese Parkerean alboan, Elduain errekan aurkitzen zen labaderoa eta Aranzadi Zientzia Elkartearen inbentarioan zegoen. Labaderoa historiko hau XVII. mende ingurukoa zen; Gipuzkoa mailan, erreka barnean kokaturik aurkitzen zen bakarrenetakoa zen Aranzadiren esanetan.

Berriro ere gogor salatzen dugu suntsiketa ekintza hau. Ulertezina egiten zaigu ikustea Udala Korporazio honek nola mespretxatzen duen herriko ondare historikoa.

Udal ordezkarik hauen jarrera sinestezina da, eta agerian uzten dute zenbat axola zaien herriko ondare. Gaur inoiz baino gehiago inposaturiko politikoak besterik ez dira.

Jakin dugunez, ekainaren 18an Ibarrako alkateak, «istripuaren» edo labaderoaren suntsiketaren berria jazo zuen. Ekainaren 19an, Ibarrako Kultura Teknikariak udaletxean gertaera honen inguruko informe bat aurkeztu zuen. Salaketa idatzi hau ekainaren 24ean ari gara idazten. Denbora guzti honetan zehar Korporazioak ez du inongo neuririk hartu. Labaderoko ondare guztia han dago, txikituta eta zaborra bailitzaan pila-tuta. Ez dakigu noren zain dauden, agian urak hazi eta dena ezkutatzeari nahiko dute hauek. Horrela, hitzik gabe utzi gaituen jarrera honen frogak ezkutatuak geldituko lirateke.

Neurri batzuk hartzea zaila ez zela iruditzen zaigu. Zentzu pixka bat izanez gero etzen «istripurik» suertatuko. Baina berandu denez horretarako eta gehiegi eskatzea denez, gutxienez ondoren zerbait egin beharko litzatekeela uste dugu: Aranzadi Zientzia Elkartearekin hitz egin; labaderoa osatzen zuten eta txikituta dauden ondarekin jaso: hauek ez dira harri eta egur hutsak. Herri baten historia dira eta ez dute mespretxurik merezi. Korporazio honek, Ibarrari errespetu zipitzi baldin badio, neurriak har ditzala eskatzen diog salaketa honen bitartez.

Ez da posible ehundaka urtetako historia, Txontxo, Donperu, Labaderoa..., Korporazio honek bi urtetan kolpetik suntsitzea. Ezjakintasuna edota utzikeria medio. Hori al da Ibarrarekiko duzen errespetua?

Ibarrako ezker abertzalea. Ibarra.

» EGITARUA HERRIZ HERRI

ASTEASU

Hilak 26, bihar

- **10:00.** Haurren arteko krosa eta marrazketa lehiaketa.
- **12:00-14:00.** Haur parkea.
- **14:00.** Haurren arteko bazkaria.
- **15:30-18:00.** Haur parkea.
- **17:00.** Poxpolo eta Mokoloren *Mekabix mariatxi* emanaldia.
- **20:30.** Sorginen jaitsiera eta txupinazoa. Txistulari eta buruhandien kalejira ere egongo da.
- **21:30.** Herri afaria plazan.
- **Ondoren** Trikujai diskofesta.

Hilak 27, etzi

- **10:30.** Asteasuko auzoen arteko Futbol Txapelketa.
- **14:30.** Koadrilen arteko bazkaria.
- **16:00.** Gaztetxoaren goitiberak Elizmendin.
- **17:00.** Mus Txapelketa.
- **18:00.** Zezen txiki eta poneyak.
- **18:30.** Helduentzat jokoak; kani-kak eta toka.
- **23:00.** Laiotzen erromeria.

Hilak 28, igandea

- **11:00.** Pilota jaialdia: Esku Pilota Eskolako Txapelketako finala (alebinak) eta infantil mailko pilotarien arteko partida eskuz. Aitzondo Txirindulari Elkartean antolatutako Asteasuko Pala Txapelketaren finala ere izango da.
- **Ondoren** sagardo dastaketa.
- **18:00.** Ikusgarri taldea; motozerraz egindako egur lanak.
- **19:00.** Erdizka Lauetan taldea; dantza saioa plazan.

- **23:00.** Izer eta Alabier trikitalarien erromeria.

Hilak 29, astelehena, San Pedro eguna

- **10:00.** Diana.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren** Elizmendin hamaiketako, Soka Dantza eta esku pilotako finalak (aurreberjaminak eta benjaminak).
- **18:00.** Asteasuko eskolak eskainitako trikitalia jaialdia plazan.
- **19:00.** Herriko musikarien kalejira.
- **22:30.** Bertso saioa frontoian.

Hilak 30, astearte, Jubilatuen Eguna

- **11:00.** Meza.
- **Ondoren** Aitzondo Elkartek hamaiketako eskainiko die herriko jubilatuei.
- **13:00.** Herri kirolak: aizkolariek (Jokin Alkizalete, Joseba Otaegi, Ugaitz Mugerza eta Ander Erasun) eta harrijasotzaileak (Aimar Irigoien eta Izeta II).
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitaliarekin.
- **18:00.** Herriko dantzariak.
- **19:00.** Laket taldearen erromeria.

ARESO

Hilak 26, bihar

- **Gauean** herriko gazteen koadrilek afaria egingo dute elkartean. Ondoren, parranda.

Hilak 27, etzi

- **09:30.** Gosaria. Ondoren eskean joango dira baserrietara.
- **Atsaldan** jokoak egingo dituzte plazan eta ondoren erromeria izango dute.
- **Iluntzean** afaria elkartean biltzen diren guztientzat. Musika izango dute ondoren.

Hilak 28, igandea

- **Goizean** gosaria. Santua bildu eta etxeetara eskean joango dira ondoren.
- **Arratsaldan** musika.

LEABURU

Hilak 27, etzi

- **12:00.** Jaien hasiera suziriarekin.
- **16:30.** Mus Txapelketa Zazpi Bide Elkartean.
- **17:00.** Haurrentzat rokodromo puzgarria jarriko dute plazan (hiru orduz monitoreak ikuskatuta).
- **21:00.** Herri afaria frontoian.
- **23:00.** Xapre eta Zaharra trikitaliak.
- **01:00.** Musika.

Hilak 28, igandea

- **Goizean.** Suziriak.
- **11:00.** Meza San Pedro elizan.
- **Ondoren** Hodei Truken emanaldia San Pedro elizan.
- **17:30.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **18:30.** Herri kirol jaialdia Mieltxo Saralegi eta konpainiaren eskutik: Iparraldeko jolasak, harrijasotzaileak eta trontzalariak.

Hilak 29, astelehena, San Pedro eguna

- **Goizean.** Suziriak.
- **09:30.** Diana txistulariekin.
- **12:00.** Meza nagusia.
- **Jarraian** ohiko hamaiketako banatuko dute herriko ostatuan.
- **Ondoren** Toka Txapelketa.
- **16:30.** Haur eta helduentzako jolasak.
- **Ondoren** Txokolatada.
- **Iluntzean** barrikotea herriko plazan (norberak eraman behar du janaria).

URKIZU

Hilak 27, etzi

- **12:00.** Suziria botako dute jaiet hasiera emateko eta kanpai jotzea ere izango da.
- **13:30.** Auzoko umeen bazkaria eta umeen jolasak arratsalde osoan zehar.
- **21:00.** Auzoko afaria bertsolari eta trikitaliekin aitalurik.

Hilak 28, igandea

- **11:00.** Patata tortila lehiaketa.
- **12:00.** Patata tortila dastaketa eta sagardo lehiaketa.
- **12:30.** Toka Txapelketa.
- **18:00.** Umeen jokoak eta txokolatada.
- **18:30.** Bolo lehiaketa.

Hilak 29, astelehena, San Pedro eguna

- **11:00.** Meza nagusia
- **Ondoren** hamaiketako banatuko dute.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

- **Etebizitza.** Irura edo Anoetan etxebizitza txiki bat alokatu nahiko nuke. 943 21 25 64.

LANA

- **Bigigarbitasunak.** Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak... Deitu konpromisorik gabe. 638 944 604 edo 695 708 271.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ Inkesta. Webgunean inkesta berriak aurkituko dituzue. Batetik, zeuen iritziz Hitza Pilota Txapelketan nor irabaziko duen jakin nahi du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK: Telletxea-Mitxelena edo Azpiri-Madariagak. Bestetik, udan nora joateko asmoa duzen jakiteko inkesta ere bada. Bestalde, HITZAREN webgunean eskualdeko azken albisteen berri izango duzue eta Tolosako, Bealauntzako eta Abaltzisketako San Joanetako argazkiak eta bideoak ere ikusi ahal dituzue:

www.tolosaldekohitza.info



Apustuaren nondik norakoak eta arauak otsailean zehaztu zituzten udaletxean. Irudian, Gorostidi, Zubizarreta, Senperena, jai batzordeko bi kide eta Lasa. N. U.

Igandean Xabi Lasa alde batetik eta Mikel Senperena, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidi abaltzisketarrek egingo dute duela lau hilabete hitzartutako apustua: Txindokiko tontorrera lehenengo nor iritsi.

Nork itxaron nori?

NEREA URBIZU

Urriko kontua da igandean egingo dutena: Txindokira nor lehenengo igo, Abaltzisketako hiru gizonetako alde batetik, edo bestetik Arriaran-goa abaltzisketar «berria». Urriko kontua bada ere, ez dago beste gai-rik Abaltzisketako inguruetan.

Urrian botatako apustua da, beraz, Xabi Lasak alde batetik eta Iñaki Gorostidik, Jon Zubizarretak eta Mikel Senperenak bestetik. Otsailean eman zioten forma apustuari, lekuko eta gutzi. 1.000 euro bildu zuten: alde bakoitzak 500 euro jarri behar zituen. Festa batzordeak gorde du dirua eta igandean ikusiko da zeini eman behar zaion: Txindoki gainera lehen iristen denari.

Herrian giro berezia sortu du apustu honek, elkarrizketetako gaia da eta izan da askotan eta leia nork irabaziko duen ez dago garbi eguna iritsi arte. Hirukotearen aldeko asko dira, baina baita bakarrik doanaren aldekoak ere. Azken hau korrikari aritutakoa da, kirolaria, eta abaltzisketako hirukotea azken hilabete hauetan prestatu da gehienbat.

Proba «ondo» egiteko daude

Bai hirukotea eta baita Xabi Lasa ere, «oso pozik» daude egin duten prestatetarekin. Lasa «oso gustura, espero bezala» sentitzen da, «bai fisikoki eta baita buruz ere: laisai nago». Hirukoteak azken bi hilabeteetan zehar entrenamendu saio gogorragoak egin ditu eta hobekuntza ikusi dute.

«Bakoitzak zein zati egingo duen zehaztuta daukagu, eta Txindokirako bidea birritan egin



0 kilometrotik abiatuko dira Senperena eta Lasa, Abaltzisketatik. N. URBIZU

dugu: zerbait txukuna egiteko itxaropena daukagu». Xabi Lasak Jon Aranburu bere prestatzaile fisikoa goraipatu eta eskertu nahi izan du, «bost hilabetetan zehar prestatu nau eta eskertzekoa da. Serieak, erritmo aldaketak, gimnasioko prestateta, mendi zein errepideko lasterketak... egin ditut denbora honetan zehar». Ederki ikasia dauka Txindokirako bidea.

Guztira 6 kilometro inguru dira eta honela banatu dute abaltzisketarrek ibilbidea: Mikel Senperena gazteak 0 kilometrotik hasita (pla-

za inguruan) 2.700 metro egingo ditu. Beraz, langatik gora zertxobait ere egingo du. Ondorengo trama Jon Zubizarretak egingo du: guztira 2.500 metro Oriako zubiraino iritsi arte. Hanzain izango du Iñaki Gorostidi, Txindoki puntaraino igotzeko. Kilometro bat inguru egin beharko du.

«Zati guztiak dira gogorrak, baina baliteke tartekoa gogorrena izatea, luzea delako eta gorabehera handia dagoelako ere». Ez da ahaztu behar Abaltzisketa 370 metrorra dagoela eta azken txanpa oi-

nez egin beharko dute Lasak eta Gorostidik, sasoiko iritsita ere gogorra delako. Azkeneko zatian 404 metroko gorabehera dago.

Ordu bat baino gutxiagoan

Epaile lanetan Iraitz Zubeldia eta Jose Ramon Mujika ariko dira, jai batzordekoekin batera eta beraien lana dena ondo eta egoki betetzen dela ziurtatzea izango da. Bidean zehar egongo diren bakarrak ez dira, ordea, epailek izango. Herriar askok bertaratzeko asmoa dute, korrikalariak nola igarotzen diren ikusteko eta animoak emateko, beharko baitituzte...

Proba bere horretan «gogorra» da, aldapsua delako. Abaltzisketa 370 metroko altueran dago, eta Txindoki 1.346 metrora. «Tximistatik gora ia ezinezkoa da korrika joatea oso maldatsua delako».

Bi taldeek agi denez saio batzuk egin dituzte mendian gora eta ordu baten azpitik egingo omen dute. Baina eguraldiak ere baldintzatuko du apustua. Lasa ez da berro ondo jasaten duenetakoa eta gainera berak bakarrak egin behar du dena. Hirukoteak dio «beroa komeni» zaiela egitea, horrela «guk sufriruko dugulako baina Xabik gehiago». Oraindik eguraldia ez da segurua, lainoa bezala eguzkia ere ager daiteke eta.

Enkantean parte hartzeko igandera arte dago aukera

Herrian apustuaren inguruan somatzen da giroa. Bost tabernetan eltxetxuak daude jendeak euro bateko apustuak egiteko. Pertsona bakoitzak euro bat jokatuta ahal izango du enkante bakoitzeko: adibidez, lagun bakoitzak 10 apustu egin ditzake, baina bakoitzak euro bana balio du (10 euro). Dirudie-nez, nahiko parekatuta daude: hiru abaltzisketarren alde batzuk eta Lasaren aldekoak beste batzuk.

Enkantean parte hartzeko garaian izen abizenak eman beharko ditu parte-hartzaileak tabernan, gehi telefono zenbaki bat eta bukatzeko, proba aurrenekoa egiten

» KONTUAN IZATEKOAK

- **Apustua.** Txindokira ahalik eta azkarren igotzea, Abaltzisketatik hasita. Korrikalari batek dena eta hiruren artean dena (bakoitzak zati bat).
- **Korrikalariak.** Xabi Lasa alde batetik, eta bestetik Mikel Senperena, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidi.
- **Eguna.** Ekainak 28, igandea.
- **Ordua.** 11:00etan.
- **Gorabehera.** Abaltzisketa 370 metrorra dago eta Txindoki 1.346ra. Beraz, ia 1.000 metro.
- **Jokoan dagoena.** 1.000 euro: alde bakoitzak 500 euro jarri du.
- **Gutxi gorabeherako distantzia.** 6 kilometro.

duenaren denbora. (Orduak), minutuak eta segundoak zehaztu behar dira. Egunean bertan zehaztuko dute zenbatekoa izango den asmatzailearen saria. Emozioa badago...

Azken enkantea igandean 10:00etan egin ahal izango da. Hau korrikalariak proposatu duten enkantea da baina bada besteren bat herrian: herritar batek irabazleak 50 minutu baino gutxiagoan bukatuko duela esan du eta beste batek gehiago: tartean, noski, dirua dago.

Lasa baldin bada iristen den lehenengoa, suziri bat botako dute, herrian denek jakin dezaten zein izan den irabazlea. Taldeak irabaziz gero, hiru suziri botako dituzte. Zubizarretak adierazi bezala, «badakigu batzuk Txindokira igotzeko asmoa dutela, proba bertatik ikusteko: handik ia lasterketa osoa jarrai daiteke».

Hirukoteak estetika ere zaindu nahi eta Logikalkine teknologia berri-tzatzaileko enpresak arropa jeezina prestatu die korrika egiteko. Berdin joango dira jantzita. Serio hartu dute nonbait, igandeko apustua. Udalak ere gaia jorratu du

Bost tabernetan eltxetxuak daude jendeak euro bateko apustuak egin ditzan

udaletxean, «jende asko» espero baitute igandean herrian. Autoak aparkatzeko arazoak izan daitezke eta herrian norabide bakarrek bide-jantzea pentsatu dute. Edozein erabaki hartuta ere, bertaratu nahi duenak pazientzia beharko du eta bertako seinaleak errespetatu.

Egun handia Larritzen

Larraitzen urtero San Pedro bezpera ospatzen dute eta aitzakia horrekin apustua egun horretan egitea erabaki zuten korrikalariak. Beraz, 11:00etan Xabi Lasa eta Mikel Senperena herriatik korrika abiatuko dira Txindokirantz. Meza 12:30ean hasiko da eta ordurako suposatzen da jakingo dela zein den irabazlea. Jarraian trikitilariak eta hamailketakoa izango da eta korrikalariak egin dutena tertulian seguruenik hitz egingo dute.



24°
12°

GOIZA ESTALIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 21°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Raimundo Amador & Ñako Goñi kontzertua Plaza Berrian 22:30ean, Tolosandblues egitarauan.

Kirola

■ **Tolosa.** Uztailaren 4ean eta Sean Pirinioetara irteera antolatatu du Alpino Uzturre, Ardiden (2.988m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

Deialdiak

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jatekietan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Lus M.) telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Tolosa Kantari egitasmoak urtebete beteko du eta bazkaria egingo dute 27an 14:30ean, abestu ondoren, Abastos plazan. Txartelak salgai Xirimiri, Laier, Elurra eta Amarotzeko Ekaitz tabernetan 25 eurotan.

Erakusketak

■ **Alegia.** Jubilatuen tabernan hila-bete osoan zehar herriko argazki zaharren erakusketa dago ikusgai,

astartetik igandera bitarte. Jendea zein lekuak daude islatuta, argazki guztiak handituta.

■ **Tolosa.** Pintura, zeramika, esku-lanak, patchwork eta ehoziriak, argazkigintzako kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa Aramburua Jauregian, uztailaren 4a bitarte.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatua (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatatu ditu Peñascal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordukoak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan (Usabal industriagunean).

■ **Tolosa.** TArkek arraun ikastarok antolatatu ditu hiru hamabostalditan: bi uztailaren eta bat abuztuaren izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreoa kalea, 10. 943 676013.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Izpiritu txarrak erreta daude jada

TOLOSALDEA • Izpiritu txarrak atzean geratu dira, udari arimaz garbi ekiteko. Herenegun gauean, San Joan bezperan, eskualdeko herri gehienetan piztu zituzten San Joan suak —irudian, Tolosan eginikoa, Santa Ma-

ria elizaren kanpoaldean—. Iaz ez bezala ez zen euririk izan eta jende asko, gazte nahiz heldu, animatu zen garrei aurre eginez suaren gainean salto egitera; hauek ziur uda ongi igaroko dutela... I. TERRADILLOS



harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako otordua

Adunako
Uztartza Jatetxean




UZTARTZA JATETXEA - ATERPETXEA
Herriko plaza, 7 • Aduna
tel.: 943 69 34 81

Uztartza

② 2 lagunentzako asteburua, gosaria eta zirkuitu termala



AISIA LEKEITIO
Santa Elena etorbidea z/g • Lekeitio (BIZKAIA)
<http://www.aisiahoteles.com>
tel.: 94-6842655



Aisia Lekeitio Hotelean



③ 4 harpidedunentzat disko bana

Mikel Laboa (1934-2008)
CD-DVDa



④ Produktu ekologikoz osaturiko otarra

Manttangorri
elkartearen eskutik

Tel.: 943 377 945 • Faxa: 943 376 383
www.manttangorri.net
manttangorri@manttangorri.net



PRODUKTU BIOLOGIKOAK

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zehazki eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza